GAZTELUKO UDALA
(GIPUZKOA)

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

Gazteluko Udal Ostatuaren kudeaketa eta ustiapenerako aurkeztutako proposamenen azterketa eta irekiera-ekitaldia, Gaztelun, 2026ko maiatzaren 14an egindako kontratazio mahaiaren bilerako akta.

Partaideak:

Etorritakoak: Mahaiburu: Eider Olazar Elduaien
Kideak: Tamara Loriente Arias

Idazkaria Akzidentala: Idoia Arana Sagardogui

Hasiera: 08:30

Mahaiburuak, Gorka Elizalde Goicoecheak maiatzaren 11an Udalean aurkeztutako idatziaren berri eman du. Bertan, Gazteluko herri ostatuaren kudeaketarako aurkeztu duen proiektuari uko egiten diola adierazten du.

Unai Loidi Leundak udalean aurkeztea eskatu zitzaien dokumentaziotik Foru Ogasuneko ziurtagiria falta zaio. Pleguak ikusi ondoren bere eskaera ez onartzea erabakitzen da.

Ondoren, Mahaiburuak Narcisa Farcasen B sobrea zabaldu du. Bertan a), b), d) bideragarritasun plana eta i) eskaintza ekonomikoa hobekuntza dokumentuak falta dira. Hauek zuzentzeko 3 eguneko epea emango zaio. Ondoren, aho batez, erabaki dute:

Dokumentazioa baloratzeko kontratazio mahaiak beste bilera bat egitea.

Zortziak eta berrogeita bost minutu direnean kontratazio mahaiko bilera bukatu egin da.

Gaztelu, 1 Kontzeju · 20491 Gaztelu
Tel: 943 20 52 00 E-mail: udala@gaztelu.eus

GAZTELUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaztelu herria

KONTRATAZIO MAHAIAREN DEIALDIA

Gazteluko Udal Ostatuaren kudeaketa eta ustiapenerako aurkeztutako proposamenen azterketa eta irekiera deialdia.

Eguna: 2026-05-14
Ordua: 08:30

Gaztelun, 2026ko maiatzaren 7an
Alkatea

GAZTELUKO UDALA

Sin.: Eider Olazar Elduaien

Gaztelu, 1 Kontzeju · 20491 Gaztelu
Tel: 943 20 52 00 E-mail: udala@gaztelu.eus